

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

6409

570/2021 EBAZPENA, abenduaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena, Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariaren azaroaren 15eko 513/2021 Ebazpena partzialki deuseztatzen duena eta bertako akatsak zuzentzen dituena (Ebazpen horren bidez argitaratzen dira Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2021eko azaroko zikloaren destinoen eskaintza, A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko I. eranskinean jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik).

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

1307/2021 ebazpena, urriaren 21ekoa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze-lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren deialdia egiten den, I. eranskinean A1 Fakultatibo Mediku eta Teknikarien lanbide-taldeari dagokionez jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 atalean xedatutakoari jarraituz, Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzako webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 513/2021 Ebazpenaren bidez (2021eko azaroaren 30ean 238. zenbakidun EHAAn argitaratua), argitara ematen da Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2021eko zikloaren destinoen eskaintza. eranskinean A1 Fakultatibo Mediku eta Teknikarien lanbide-taldeari dagokionez jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako eta II. eranskinean eskaintza honetako destinoak jasotzen dira.

Identifikatutako destinoen artean, hainbat erakunderi dagozkienak sartu dira, zeinetan ikusi baita eskaintako destinoen batek ez dituela betetzen zikloan sartzeko irizpideak. Zuzendu egiten da akats hori.

Prozesua behar bezala eta fidagarritasunez gara dadin, eta langileen arloan indarrean dagoen legediak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Partzialki deuseztatzea 513/2021 Ebazpena, azaroaren 15ekoa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2021eko zikloaren destinoen eskaintza, A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko I. eranskinean jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik.

«II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: FAKULTATIBO ESP. OSPITALEKO PEDIATRIAKO FEM

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAKULTATIBO ESP. OSPITALEKO PEDIATRIAKO FEM»

Bigarrena.– Ondoriorik gabe uztea honako destino hauek ezarpen-zikloan sartzeko agindua:

Destino kopurua	Zerbitzu-erakundea	Destinoa
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikoak-Ospitaleko Pediatria-Ospitaleko Pediatria / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Igaro gabeko data (2022-12-03)
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikoak-Ospitaleko Pediatria-Ospitaleko Pediatria / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota

Hirugarrena.– Aldatzea 513/2021 Ebazpena, azaroaren 15ekoa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2021eko zikloaren destinoen eskaintza, A1. Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko I. eranskinean jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik.

Honakoa esaten den lekuan:

Destino kopurua	Zerbitzu-erakundea	Destinoa
2	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikoak-Ospitaleko Pediatria-Ospitaleko Pediatria / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe

Honakoa esan behar du:

Destino kopurua	Zerbitzu-erakundea	Destinoa
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikoak-Ospitaleko Pediatria-Ospitaleko Pediatria / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe

Laugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren web-orrian eta EHAAn argitara dadin agintzea.

Ebazpen honi argitaratzen den datatik aurrerako ondorioak ematea.

Beste ekintzetan Osakidetzako zuzendari nagusiaren martxoaren 26ko 145/2021 Ebazpenean ezarritakoa mantentzen da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA-n argitaratzen den egunaren bihamunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREZOÑAGA.